

Mariasun Landaren literatura, haur eta gazteentzako ezohiko irakurketa eremuak¹

Amaia Serrano Mariezkurrena

amaia.serrano@ehu.es

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila
Letren Fakultatea
Euskal Herriko Unibertsitatea

GAKO HITZAK: Haur/gazte literatura. Errealismo kritikoa. Modernitate. Lehen/Bigarren Hezkuntza. Mariasun Landa.

0. SARRERA

Mariasun Landa (Erreterria, 1949) euskal haur eta gazte literaturaren (EHGL) esparruan oso idazle ezaguna da. Bere liburuen arrakastaren arrazoiak irakurleei eskaintzen dizkien irakurketa maila ezberdinetan eta erreallitateari egindako kritika iradokitzailean dautza.

Ibilbide literario osoan zehar sari ugari irabazi ditu, esate baterako Lizardi Saria *Txan fantasma* obragatik eta Euskadi Saria *Alex* lanarengatik. Horrez gain, bere hainbat ipuin IBBYren zerrendetan egotea (*Iholdi, Krokodiloa ohe azpian*) eta White Raven Zerrendetarako aukeratua izatea (*Elefante txori-bihotza*) adierazgarria da. Gainera, 2003an Haur eta Gazte Literaturako Sari Nazionala eskuratu zuen *Krokodiloa ohe azpian* libu-

¹ Lan honen oinarrian *Euskal Haur eta Gazte Literatura* Bilboko Udako Ikastaroan emandako «Mariasun Landaren Haur eta Gazte Literatura» hitzaldia dago, eta IT 495/10 eta GIC 10/100 ikerketa proiektuen parte izateaz gain, Eusko Jaurlaritzaren doktoradutza-aurreko laguntza izan du.

Artikuluaren idatzaldirako ezinbesteko izan zait Jon Kortazarren eta Manu Lopez Gaseniren laguntza, lehenak aipatutako ikastaroan parte hartzeko aukera eman zidalako eta bigarrenak lana zorrotz irakurri eta iradokizun baliotsuak egin zizkidalako. Bihoakie bieie nire esker ona.

ruaz. Azken lorpen horrek EHGLan eragina izan zuen, euskaraz idatzitako obra batek sari hori jasotzen duen lehen aldia (eta, oraingoz, bakarra) izan baita.

Horregatik guztiagatik, ez da harritzekoa bere obrak hizkuntza askotara itzuli izana: katalanera, gaztelaniara, galegora, ingelesera, frantsesera, bretoierara, errusierara eta abar.

Idazle oparo honen obrak hobeto ezagutzeko asmoz, lan honen helburua Mariasun Landaren ibilbide literarioan funtsezko diren alderdiak eta berezitasunak aztertzea izango da: lehendabizi istorioen oinarrian dauden gaiak arakatuko ditut, ondoren pertsonaien nolakotasunean sakonduko dut, gero narrazioko baliabide nagusiak izango ditut hizpide eta, azkenik, ilustrazioez arituko naiz. Amaieran, azken gogoeta batzuk egingo ditut, ondorio moduan.

1. ISTORIOEN FUNTSA: GAIAK

Mariasun Landaren istorioetan gai ugari jorratzen dira, baina EHGLari ekarri dion berrikuntza, gaietan ez ezik, haien trataeran datza.

Idazle honek egoera latzak edota deserosoak begien bistan jartzen dizkio irakurleari, dela eroetxean sartzen duten neska irudimentsu baten bidez (*Txan fantasma*) edo gurasoen banaketaren lekuko den Mainerren barne-gatazkak adieraziz (*Katuak bakar-bakarrik sentitzen direnean*), dela droga-kontsumoa haur baten ikusmiran jarriz (*Marina*) edo fisikoa hobetzeko kirurgia estetikoak egiten dioten inurri bat aurkeztuz (*Inurri bitxia*). Dena den, gai horiek mahai gainean jartzeak ez ditu bere ipuinak ezkortasunez janzen, alderantziz baizik, umore kutsu batez gordintasuna ezabatzen saiatzen da eta, aldi berean, halako egoeretatik ateratzea posible dela aldarrikatzen du, amaiera aldera une garrantzei samurtasun eta esperantza pixka bat emanez². Michi Strausfeld adituaren aburuz, errealitatea den bezala helarazi behar zaie haur eta gazteei, baina, era berean, berebiziko garrantzia du esperantza eta fedea, poztasuna eta irribarrea mantentzeak (1989, 86-87 orr.).

Mariasun Landak tabuak apurtzeko joera izan du hasieratik eta, besteak beste, askatasuna, beldurra, inkomunikazioa, maitasuna, traizioa, damua eta heriotza bezalako gaiak baliatu izan da³ gizarte honetako arazoak azaleratu eta kritika egiteko: kritika hezkuntza sistemari (*Elefante txori-bihotza*),

² Orokortasun horrek, ordea, salbuespenak ditu eta, Miren Ibarluzeak esaten duen bezala, «[ipuin] denak ez dira ongi bukatzen (Elefantearen eta arkakusoaren arteko maitasun istorioa, kasurako, ez da posible)» (2011, 123 orr.).

³ Gaikako sailkapenak tipologia bat egiteko balio badu ere, kontuan hartu behar da ipuin batean gai nagusi bat izateak ez duela esan nahi bertan azpi-gai gehiago aurkituko ez dugunik.

gurasoen eta haurren arteko behar bezalako komunikazio ezari (*Nire eskua zurean; Katuak bakar-bakarrik sentitzen direnean*), fisikoaren garrantziari (*Inurri bitxia; Julieta, Romeo eta saguak*), denda txiki eta handien arteko lehiari (*Joxepi dendaria*) eta abarri. *Kaskarintxo* liburuan, adibidez, Mariasun Landak Afrikako lurralde batean neska zuri bat kokatzen du, horrela hein batean mendebaldeko ikuspuntua irauliz. Hona hemen Afrikako herri-tarren harridura adierazten duen pasartea:

Beltz haiek harriturik begiratzen zioten neskatxa zuriari. Martetar bat ikusi izan balute ere ez ziren gehiago harrituko. Begiak bere lekutik irte-teko zorian zeuzkaten. Hasieran mututurik egon ziren gertakizun harrigarri hari begira. Gero, bakoitza bere iritzia ematen hasi zen:

- Zein itsusia den!
- Zein zuria eta zatarra!
- Beltza izan balitz askoz ere politagoa izango zen!
- Nondik ote dator eta nola heldu ote da lurralde hauetara? (32-33)

Euren lehenengo irudipena hori izan arren eta elkar ulertzeko zailtasunak izanagatik ere, *Kaskarintxo* erabat integratzen da taldean: beraien hizkuntza ikasten hasi eta trukean Euskal Herriko dantza batzuk irakasten dizkie. Kultur integrazio normal baten irakaspena ematen zaigu.

Amets uhinak liburuko «Komedianteak» ipuinean, berriz, herri txiki batera heltzen den komediante taldeko neska gazte batek (Txepetxek) herriko beste batekin (Uxuerekin) duen talka kulturala edo klase talka aurkezten zaigu, izan ere, kontakizunean modu argi batean kontrajartzen ditu alfabetatugabea den gazte pandero-jolea eta alfabetatua den herriko neska. Dena den, narrazioaren garapenean zehar horrek ez du pertsonaiengan eragin gaiztorik. Txepetxek ez du izan eskolara joateko aukerarik, baina hori ez da oztopo, narrazioko anekdota bat baizik. Beraz, Mariasun Landak kasu horretan adiskidetasunari ez dizkio mugak jartzen; kolore, jakituria eta esperientzia ezberdinek ez dute laguneren arteko erlazioan inolako trabarik sortzen. Horren erakusgarri da «Komedianteak»-eko azken zati hau:

—Uxuerengana bueltatuz, gehitu zuen Txepetxek:

Uxue, adiskide bat zer zen ez nekina orain arte. Ez zekinat nolakoa izango den nire bizitza hemendik aurrera, baina hire adiskide izatea gus-tatuko litzaidaken. Ez zekinat nola eskertu... ez zekinat... (76)

Adiskidetasuna hainbat aldiz agertzen da, *Partxela*, *Txan fantasma*, *Haginak eta hilobiak* eta *Marina* ipuinetan adibidez. Erlazio ederrak dira, gizarteak bazterturiko pertsonaiengan arreta jarri eta haiekin ongi moldatzen diren beste batzuk aurkezten baitira. *Haginak eta hilobiak* narrazioan, esaterako, protagonistak Deo Gratias ustez atzeratuari estimua dio, ondorengo aipuan antzematen den gisan:

—Deo, nahi duzu afaldu gurekin?

Halakoetan amatxok afaltzera gonbidatzen du baina ez hura geratzea nahi duelako, baizik eta Deok erreakzionatu dezan eta bere etxera joan dadin. Zeren eta, nola ez daukan aita zahar jenio bizikoa zaindu beharrik, ez daki denborarekin zer egin, eta astun samar jartzen da, baina niri gustatuko litzaidake noizbait afaltzera geratzea, eta amatxik ez gonbidatzea horregatik bakarrik, ezetz esan eta alde egin dezan. (13)

Amets uhinakeko «Opil» narrazioko ardatza herriko haurrek langabezia geratu berri den neska gaztearekiko erakusten duten elkertasuna da, eta «Loritoa» kontakizunean ere nabari da adiskidetasunarekin loturiko gaia, izan ere, loritoak kapitain zintzoari dion leialtasuna da hizpide, horregatik hura hil zuen kapitain gaiztoa erotzen saiatzen da, baita lortu ere.

Idazleak bere lanetan maitasunaz eta, bide batez, ulerkortasunaz ere badihardu, dela bikotekide berriarenganako amodioaz, dela guraso eta seme-alaben artekoaz. *Alex, Sorgina eta maisua* eta *Marlene eta taxizapata* ipuinetan, pertsonaiek abentura bat bizi ondoren, bikote izango direla iradokitzen da, amaiera ireki eta esperantzagarrien bidez. *Maria eta aterkia* eta *Julieta, Romeo eta saguak* kontakizunen bukaeran, aldiz, esplizituki esaten da pertsonaia nagusiak harreman bat hastekotan direla. Halaber, adierazgarria da elkar maite duten ia pertsonaia horiek guztiak inguratzen dituen errealitatek baztertuak izatea (Alex anti-abenturazalea da, Marlene urdin kolore berezia galtzen ari den katua, Maria zaborrak miatzen lan egiten duen neska gaztea eta abar). Gurasoen eta seme-alaben arteko harremanean maitasuna (edo maitasun falta, hobeto esanda) ageri da. *Nire eskua zurean* eta *Katuak bakar-bakarrik sentitzen direnean* liburuetakotako protagonistek euren gurasoen arreta handiagoa eskatzen dute, baita familiaren egonkortasuna bilatu ere. Lehenengo ipuinean Xabierri, bere ama gizon batekin ateratzen denez, aitaren memoriari traizio egiten diola iruditzen zaio eta, bigarren kontakizunean, Maider gurasoen banatze prozesuaren erdian aurkitzen da.

Besteren artean askatasunaren inguruko ipuinak ere idoro ditzakegu. Batzuetan zeharka eta heriotzaren gaiarekin lotura eginez (*Iholdi* ipuin bildumako «Txolarrea» narrazioan) edo metaforikoki gerren absurdua eta diktaduraren salaketa eginez (*Potx* ipuinean, non «ez» hitza esatea debekaturik dagoen eta herritarrak zoriontasun faltsu batean bizi diren). Beste kasu batzuetan, esplizituki egiten da askatasunari buruzko gogoeta, hala nola Kleta bizikletaren bitartez:

—Ba, konturatu naiz animalia horiek [zoologikokoak] indartsuagoak, ikusgarriagoak, ederragoak izan arren, ez direla libreak eta ni, berriz, bai! Ulertzen? Horregatik miresten ninduten! Zorte handia daukat... (58)

Errusika eta *Galtzerdi suizida* ipuinetan bizitzaren abentura bera da hizpide. Alabaina, askotariko azpi-gaiak ere badira: laguntasuna, maita-

suna, bazterketa, tratu txarrak, inimizate erritoak eta abar, bizitzaren abenturan ia guztia sar baitaiteke. Hala ere, aipaturiko bi kontakizunotan abentura bera da garrantzitsua. Batean, Errusika arkakusoak bere ametsa bete- tzeke egiten duen bidea kontatzen zaigu («Zeren Errusika, azkarra izanik, konturatzen hasia zegoen helburu baten atzetik bizitzea askoz dibertigarria- goa dela helburua bera lortzea baino», 80) eta, bestean, galtzerdiak, oin be- rean egoteaz asperturik, esekitokitik bere burua bota eta eskuz esku egiten duen ibilbidea kontatzen du, bere esperientzia on eta txar guztiak deskriba- tuz.

Horrez gain, haurrei esplikatzeko helduoi zail egiten zaizkigun gaiak ere jorratzen ditu Mariasun Landak. Haurdunaldia, esaterako, *Izeba txi- kia* ipuinean modu sinple baina berezi batean kontatzen du. Ainhoa, zor- tzi ahizpetako gazteenak badaki bere ahizpa Maite haurdun dagoela, baina zalantzak ditu noiz eta nola jaioko ote den Xabier. Horregatik, etorkizuna igartzen duen amaren izebari —Potixari— galdetzen dio:

—Potixa, haurra nola etorriko da?

Potixak ez entzuna egin zuen (...)

Potixak egun neketsua zuen, presaka zebilen.

—Ba haurrak atea jotzen du, kas-kas, «ireki, ireki ezazu atea!» esa- ten du eta amak izterratteko atea zabaltzen dio eta haurra kanpora irrista- tzen da.

Ni harrিতuta geratu nintzen, zeren esan zidatenez, jaioko behar dutenak arrainak bezala egon ohi dira amaren sabelean:

—Baina atea zabalduz gero, urak aterako dira!

—Bai horixe! —eta Potixak harriturik begiratu zidan. (30-32)

Lehen aipatu legez, badira ilunagoak edo gogorragoak diren gaiak, da- mua, beldurra, traizioa, bakardade gordina eta heriotza adibidez.

Amets uhinak liburuko «Maisu zaharraren testamentua»-n oso gaixo dagoen irakasle batek aspaldiko ikasle bati egiten dion aitortpena dugu. Ikasle hori idazlea denez, haren esku geratzen da maisuak egindako okerra munduari jakinaraztea. Eginkizun hori ia betebeharrak bihurtzen zaio irakaslea hiltzen denean. Azken batean, damutu egiten da irakaslea eta egindakoa norbaiti aitortuz bere buruari barkatzen diola dirudi; no- labait esatearren, kontaketak berak eragin arazgarria du pertsonaia ho- rrengan.

Bakardadea narrazio ugartan agertzen da, pertsonaietariko asko albo- ratuak sentitzen direlako. Hala ere, gai hori lantzen duen ipuinik esangura- tsuena *Krokodiloa ohe azpian* dela esango nuke. Bertan, bakartasuna gaitz larri bihurtzen da eta bizimodu azkarrak zein eguneroko lan metodikoak krokodilo itxura hartu eta bakarrik bizi den J.J.-ri gaixotzerainoko beldu- rra sartzen dio. Halaber, *Iholdi* bildumako «Zer egin beldurrak gaudenean»

ipuina bitxia da: krokodilo baten ordez apo bat dugu eta Iholdik, aitonaren aholkuak entzunda, sentipen hori gure barrutik kanporatzeko edo isilarazteko zer egin behar den kontatzen digu.

Lagunen arteko traizioaz *Irma* liburuan aritzen da, modu nahiko gardenean gainera. Lagun batek besteak duen arkakusoa nahi du eta hori lortzeko edozertarako gai da. Dena den, irakurle gaztearen konplizitatea bilatzen da eta pertsonaiaren diskurtsoak harekin ulerkor izatea dakar.

Azkenik heriotza dugu eta —haurdunaldiarekin gertatzen zen bezala— hurrei gai labain hori nola azaldu asmatzea ez da erraza. Mariasun Landak, berriz, pare bat ipuinetan oso modu atseginean ematen digu bere ikuspuntua. *Amona, zure Iholdi* kontakizunean, pertsonaia nagusiak hilda dagoen amonarekin hitz egiten du. Barne-bakarrizketa bat da, baina amonarekin ari dela sinesteak indarra ematen dio protagonistari:

Amona, sekretu handi bat daukat eta ez dakit nori kontatu. Zeruan zaudela esaten didate, eta ni batzuetan zerura begira geratzen naiz, batez ere hegazkinak pasatzen direnean. Orduan pentsatzen dut hegazkinen joan-etorri horiek zuzentzen jarri zaituela Jainkoak, udaltzainak kaleetan egoten diren bezalaxe, lehenago ere ezin baitzenuen ezer egin gabe egon eta zeruan ere seguru lanean zaudela, eta guri begira, niri begira ere bai, ea zintzoa naizen, lehenago bezala. (5)

Aitonaren txalupa ipuinean, Mainerrek naturaltasunez bizi du zen-duriko aitonarekin duen enkontrua: «ez ninduen inola ere harritu nire aitona hantxe zain ikusteak ...» dio. Harekin hitz egiteko beharra du, azken agurra ematekoa. Orduan agureak irakaspen baliotsu bat eskaintzeko probesten du aukera hori: hildakoak bizirik diraute, baldin eta baten batek gogoan baditu. Haren ulerkortasunak lasaitu egiten du protagonista.

Gai bat edo bestea dela, Mariasun Landak hurrei bizitza nolakoa den erakutsi behar zaiela pentsatzen du, horretarako gertaerak samurki aurkeztuz:

(...) niretzat haurrak txikiak dira baina ez dira inolaz ere ergelak, serioak dira. Haurtzaroan emozio bortitzenak gertatzen dira, orduan, zergatik ezin dugu denetaz hitzeggin (sic) hurrekin?. Hau mantentzea oso garrantzitsua da niretzat, literaturaren bitartez denetaz hitzeggin dezakegulako hurrekin. Haurrak amodioa, gorrotoa edozer gauza sentitzen du, baina ezin du sentitzen duenari buruz hitzeggin, eta hori da nire ustez haurtzaroaren drama.

Edukiari dagokionez, haur eta gazte literaturan denetaz hitzeggin daiteke. Forma da zaindu behar dena. (...) Hori da haur literaturaren erronka: gauza serioak azaldu baina forma estilistiko landu baten bidez. (*Euskonews*)

2. MUNDU IKUSKERA BEREZIKO PERTSONAIA ZAILDUAK

Mariasun Landaren unibertso literarioan pertsonaia ugari daude, mota eta berezitasun askotarikoak, baina guztiek komun dituzten ezaugarriek batasuna eta koherentzia ematen diote idazle honen literaturari, batez ere kontuan hartzen badugu pertsonaiak direla hein handi batean ipuinak uler-
tzeko giltza.

Idazle errenteriarraren ibilbidea etapa ezberdinez osatua dago eta, ga-
raiaren arabera, haren kontakizunetako pertsonaiak izaera batekoak ala
bestekoak dira. Gema Lasarte doktoreak dioenez, bi une bereiz daitezke
Mariasun Landaren sorkuntzan⁴: «(...) bere ibilbidea fantasiaren bidetik
hasi zuen (...) non abiapuntua egunerokotasuna aztoratzen duen gertaera
bat den (...). Bigarren etapan, Landa errealismo kritiko deritzan hartan
murgiltzen da»⁵ (2005, 67 orr). Azken garai horrek berebiziko garrantzia
du, zeren *errealismo kritikoa* irakurleei gai berriak ikuspuntu zorrotzez es-
kaintzen dizkien korrontea baita. Gure kasuan, gero eta arruntagoak diren
egoerak ikusarazten zaizkie haur eta gazteei (gurasoen banatzea, heriotza,
gerrak etab.) eta horien aurrean iritzi propio eta kritiko bat garatzeko bi-
deak eskaintzen. Azken batean, helburua pentsaraztea da, didaktikotasu-
nean erori gabe irakurleari bere kabuz gogoeta egiteko gaitasuna garatzen
laguntzea (Strausfeld, 1989, 83-85 orr.).

Aldaketa hori *Txan fantasma* (1984) ipuinaren eskutik etorri zen, ba-
tez ere, euskal haur eta gazte literaturan modernotasunaren oinarria⁶ eza-
rri baitzuen, bai gaiaren aldetik, baita kontatzeko moduagatik eta ilustrazio
irekiengatik ere (Etxaniz, 1997, 281 orr.; Etxaniz 2003, 19 orr). Dena den,
Txan fantasma baino lehenago argitaratu ziren Landaren kontakizun la-
bur batzuek bazituzten errealismo kritiko horren zantzuak, hala nola *Amets
uhinak* bildumako «Opil» (non, lana galdu duen neskato baten bidegabeke-
ria salatzen den) edota *Joxepi dendaria* (non, denda txiki bateko jabearen
bidez, kritika egiten zaien saltoki handien jokabideari).

⁴ Xabier Etxaniz adituaren ustean, ordea, hiru garai ezberdinu daitezke: bata, *Txan fantasmarena*, euskal haur eta gazte literaturara modernitate ekarri zuena; bestea, *Iholdi* ipuin sortarena, minimalismo errealistaren bidea jorratu zuena eta, azkenik, *Julieta, Romeo eta saguak* liburutik aurrerakoa, istorio luze eta elaboratuagoena (2003, 20 orr.).

⁵ Jatorrizkoa: «(...) inició su andadura por la senda de la fantasía (...) en la que el punto de partida es un hecho que altera la cotidianeidad (...). En la segunda etapa, Landa se adentra en lo que se denomina realismo crítico» (2005, 67 orr.). Testuko aipua jatorrian euskara ez direnean neronen itzulpenak ipini ditut, artikulua euskara hutsean egotea hobetsi baitut. Alabaina, jatorrizko testu-zatiak oin-oharren bidez emateari egoki iritzi diot, irakurleak, nahi badu, haietara jo ahal izan dezan.

⁶ Bernardo Atxagaren *Chuck Aranberri dentista baten etxean* (1982) eta Anjel Lertxundiren *Tristean kontsolatzeko makina* (1981) liburuak ere izan ziren, fantasia eta beldurraren erabilera berritzailearen bidez, euskal haur eta gazte literatura modernitatearen esparrura bideratu zutenak (Etxaniz, 1997, 281 orr.).

Lehen garaiko ipuinek kutsu fantastiko handiagoa dute ondorengoek baino. Horrek, ordea, ez du esan nahi Landaren literaturan *Txan fantasmak* fantasiarekin eten zuenik, zeren errenteriarrek gizartearekiko duen jarrera zorrotz hori fantasiaren bidez ere adierazten baitu hainbat ipuinetan (gogoratu, bestela, *Maria eta aterkia*).

Halaber, hiruzpalau multzotan bana genitzake Mariasun Landaren mundu literarioko pertsonaiak: alde batetik, gizakiak (Gema Lasartek azpimarratzen duen gisan, batez ere emakume edo neskatilak), bestetik, animaliak eta, azkenik, izaki «bizigabeak» (jostailuak, zapatak, aterkia, bizikleta eta galtzerdia) edota «kimerikoak» (fantasmak). Sailkapen horrek, baina, ez ditu pertsonaien izaerak bereizten, zeren Landaren animaliak gizakiak bezain sentiberak baitira eta izaki «bizigabe» horiek animaliak bezain bizidun eta gizakiak bezain gizatiarrak. Hau da, idazleak narrazio bakoitzeko behar duen distantziaren edo gertutasunaren arabera erabiltzen ditu eta, Anabel Sáiz irakasleak dioen bezala, animaliak «mundua ulertzeko eta besteei azaltzeko aitzakia moduan erabiltzen ditu; urrundu eta behatzeko»⁷ (2007, 10 orr.).

Landaren pertsonaia gehienak bakartiak dira eta horrek askotan irudimen handiko pertsonak izatera bultzatzen ditu. Beste batzuetan barne mundu oparo horrek inoren beharrik ez izatea dakarkie. Areago, halako egoerek pertsonaia batzuk sortzaile izatera bideratzen dituzte, narrazioaren barruan beste kontakizun bat eraikiz (dela ipuin lehiaketa baten aitzakiaz, dela eguneroko baten bidez). Horren guztiaren adibide ona da «Bart gaueko bilera»-ko protagonista, batzarretan guztiz aspertu eta marrazkiei bizia ematen dien emakumea. Asmamen handiko pertsonaia horrek fikzioaren eta errealtatearen arteko mugak lausoak direla erakusten digu, edota areago, marrazkiko Don Jaume kapitainaren eta Agapitaren barkua portuan uztera doala, errealtateak fikzioa gainditzen duela:

Eta, presaka, portu aldera abiatu nintzen. Han, azken begirada bota nire paper pusketari eta, gehiegi pentsatu gabe, pixka bat zimurtu eta PLAST! uretara jaurti nuen.

—Agur, Agapita! Agur, Don Jaume! —eta tristura epel batek hartu ninduen—. Bidaliko al didazue postal bat? —galdetu nien oihuka.

Baina ez nuen erantzunik izan⁸. Nire paper hura ur gainean zabaldu eta blai eginda geratu zen. («Bart gaueko bilera», *Amets uhinak*, 17)

Elisabete lehoi domatzailea narrazioan irudimen hanpatuan bizi den beste pertsonaia bat Elisabete da, gripea duela-eta San Joan bezperan

⁷ «los utiliza como pretexto, para tratar de entender el mundo y de explicárselo a los demás; para distanciarse y observar» (2007, 10 orr.).

⁸ Azpimarra guztiak nireak dira kontrakoa adierazi ezean.

etxean geratu behar duen neskatila. Gaixo egotearen ondorioz, amets batean murgiltzen dela iradokitzen da:

zorabio gozo batean murgildu nintzen eta loguraren antzeko zerbait sentitu, nahiz eta esna egon... Etxeko egongelako eserlekuan eserita nengoela jakin arren, airean nindoala iruditzen zitzaidan, bidaia bat egiten hasi nintzela... (17)

Alabaina, bat-batean bigarren narrazio-maila horretatik lehen mailako kontakizunera egiten da salto:

Argiak piztu ziren, baina ez ziren zirkukoak. Ez, nire etxeoak baizik. (...) Nola oheratu ninduten sentitu nuen. (*ibid.*, 68)

Amaieran, ordea, bi narrazio mailek bat egiten dute: Elisabete esnatzen denean, lehoi domatzaile aritu zeneko anti-arrisku eraztuna jarrita daukala ohartzen da. Une horretan fikzioaren eta errealtatearen marra gainditzen da, elementu magikoaren bitartez.

Txan fantasmako Karmeleri ere antzeko zerbait gertatzen zaio. Neskatila hau umezurtza da eta izebaren etxean bizi da, nahiz eta hormako erlojutik ateratzen den kukuak dioenaren arabera «kariñoa falta da etxe honetan!» (18). Horregatik, «nahiko bakarti sentitzen da hemen neska gajoa!» (*ibid.*). Lehenago esan bezala, batzuetan pertsonaiek, bakarrik sentitzearen ondorioz, beren irudimena puzten dute eta, horrela, behar duten kariñoa «izaki bizigabeen» bidez lortzen dute. Izebaren ikuspuntutik, ordea, fantasiak Karmeleri kalte egiten dio eta medikua ekartzen du etxera, ilobaren gaitza zein den azter dezan. Hona bere diagnostikoa:

Zenbait kasutan lagun imaginario bat dutela iruditzen zaie eta bene-tan ikusi eta sentitu egiten dute bere presentzia. Okerrena da guzti hau ez dela lehenbiziko aldiz, lehenago ere horrelakorik gertatu zaiola nahiz eta fantasmarena berria izan... Hori da okerrena! (32)

Interpretazio horren erruz, Karmentxu Arraroen Etxera daramate. Txan fantasmak, baina, ezin du arrazoia ulertu: «Karmentxu neska arraroa al zen ba? Eta zer? Zer kalte egiten zuen? Zer egingo ote zioten han barruan?» (56).

Errealitatetik at, fikzioaren munduan gusturago sentitzeak ekartzen dio Karmentxuri eroetxean sartua izatea. Marijose Olaziregiren aburuz, ipuin horretan «Txan izeneko mamu batek autismo zantzuak dituen eta eroetxe batean sartzan duten neskatila baten istorioa kontatzen digu» (1999, 32 orr) eta Gema Lasartek, Olaziregiren aieruak baieztapen bihurtuz, hauxe dio: «*Txan fantasmako* haur autistak, Karmelek, besteen ulertu ezina jasaten du eta soilik bere jostailuei eta Txani die nahitasu-

na»⁹ (2005, 71 orr.). Bi kritikari horiek egiten duten interpretazioa zilegi da¹⁰; hala ere, ez da erraza Karmele hori eta Landaren literaturan agertzen diren irudimenez beteriko beste pertsonaiak ezberdintzen dituzten ezaugarriak zehaztea, baina Olaziregik tentuz dioenak eta Lasartek ziurtasunez baieztatzen duenak testuan bertan funtsa duela erakusteko ondorengo aipuak balio lezakeela uste dut:

Berriro bakarrik hitzegiten du eta ikastolan ez duela lanik egiten dio bere maisuak... Jan oso gutxi, beti **begirada galdua** bezala, **beste mundu batetan biziko balitz bezala**, **isil-isilik** etxean eta ikastolan eta gero **bakar-solasaldietan bere gelan**... Ez al da kezkatzekoa hori? Oraingo honetan fantasma bat dagoela dio... (*Txan fantasma*, 31-32)

Horrez gain, Ereinek argitaratutako Iholdi Sailean bada *Haginak eta hilobiak* izeneko ipuin bat, eta bertan bakarti samarra den pertsonaia bat dugu: Deo Gratias. *Txan fantasmako* protagonistarekin alderatuz, kasu honetan pertsonaiak atzerapen bat duela ematen zaigu aditzera aldez aurretik:

Ingurukoek beti esaten dute torloju bat falta zaiola, atzeratua dela eta horrelakoak. «Erdiko apala falta zaiola neska gaixoari», esan ohi zuen nire amona zenak eta nik ez nuen jakiten apalek zer zerikusit zuten Deo hain berezia izatearekin, baina atsegin nuen konparaketa hori. Beharbada, amona oso txukuna zelako esaten zuen hori, gauza bakoitza bere tokian ikustea gustatzen zitzaiolako. (6)

Garrantzitsuena ez da Karmele edo Deo Gratias atzeratuak diren ala ez esatea, baizik eta gizarteak baztertu egin dituela ikusaraztea. Mariasun Landak sorturiko pertsonaia batzuk ukatuak, isolatuak sentitzen dira: *Ahatetxoa eta sahas negartia* ipuinean, ahatetxoak urpekari izateko gogoia duela adierazten duen unetik, bere amaren eta anai-arreben burlak, bai eta zisneenak ere jasan behar ditu etengabe; *Sorgina eta maisua* ipuinean irudikatzen zaigun Erdipurdi sorgina (izenarekin soilik antzeman dakioke nolakoa den: «Izenak badu ia beti izaerarekin zerikusia», 10) ikasle txarra izandakoa eta baldarra da: umeak suntsitu nahi eta haien irakasleak xanpain botila bilakatzeko gauza besterik ez da; *Elefante txori-bihotza* liburuan aurkezten zaigun Kikunga elefanteak bere taldekoen isekak jasan behar ditu, txoriekin hitz egiteko duen ahalmenagatik: «Beste elefanteek barre egiten diete [ele-

⁹ «La niña autista de *Chan, el fantasma*, Karmele, sufre la incomprensión y solamente comparte su cariño con sus juguetes y con Chan» (2005, 71 orr.).

¹⁰ Are gehiago, Mariasun Landari egindako elkarrizketa batean idazleak honakoa airtortzen digu: «Autismoaren arazoa azaldu nuen liburu honetan, neska baten istorioaren birtartez» (Sala, 2000). Hala ere, asmoa hori izan arren, irakurleen interpretazioak ezberdinak izan litezke, noski.

fante txori-bihotzei], eta babuak, inozoak, ezdeusak, edota atzeratuak deitzen diete» (41); *Marlene eta taxizapata* kontakizunean Marlene katuaren eta taxizapata abandonatuaren gainbehera da hizpide. Biek Kale Izengabea topo egitea ere ez da halabeharra. Katua bere jabeak baztertu du, kolorea aldatzarekin batera dirdira galdu duelako segur aski. Zapataren jabea, aldiz, itsasoan ito zen eta horregatik dago bakarrik.

Alboratuak diren pertsonaia horiek irakurleari aurrez aurre jartzen dizkio Mariasun Landak, ez haietaz errukia izan dezan, baizik eta, euren egoera edozein dela ere, haiak ulertuko dituzten pertsonak topatzen dituztela ikus dezan, beti esperantzarako bidea zabalduz. Horrela, ahartetxoak urperatzea lortuko du, besteen miresmena erdietsiz. Sorginak maitasuna ezagutuko du. Elefante txori-bihotzak, Kikungak, irakaslearen laguntza izango du (baita alderantziz ere) eta Marlene eta taxizapata bizitzaren abenturan elkarrekin barneratuko dira, maitasun kutsua duen erlazio bati hasiera emanez.

Bestalde, Landaren kontakizunetan ohikoa da neska eta mutilen artean izaten den botere harremana ezabatu edo leundu nahi izatea. Horrela, neskek berea defendatzen dakitela eta egoera zailetatik bakarrik irten daitezkeela erakusten dute (*Ametz uhinak*-eko «Azken bidai»-n edo *Amona, zure Iholdi*-n gertatzen den bezala), nahiz eta batzuetan saiakera horrek porrot egin, batez ere mutilen sentiberatasun ezagatik (*Iholdi*-ko «Dilijentzia» ipuina). Halakoetan neskek euren ulertezintasuna agerian uzten dute «mutilekin ez dago jolasterik» (15) gisako esaldien bidez, izan ere, Miren Ibarluzeak dioen moduan, «oso modu naturalean ematen dira umetan mutilen eta nesken artean izaten diren ezberdintasunak» (2011, 125 orr.). *Katuak bakar-bakarrik sentitzen direnean* ipuinean, Xantiren eta Maiderreren arteko aldeak oso modu gardenean azaltzen dira. Neskak argi utzi nahi dio mutilari bera gogorra eta sendoa dela, nahiz eta barru-barruan ikarak lehertzen egon:

Baina ez nuen bere aurrean neska ustel eta kakatiaren itxura eman nahi, lehenago ere nitaz nahikoa barre egina zen eta. Ez **disimulatu behar nuen** piska (sic) bat... (77)

Eta itxurak egin beharrean sentitzen den:

—Ez al dun beldurrik? [galdetzen dio Xantik Maiderreri].
Xantiren ahots-tonua apala zen, ia maitekorra. Garbi zegoen une horretan **bere aurrean puntu asko irabazten** ari nintzela eta nik ere, berari lehenago baino begi hobez begiratzen nion.
Ez kezkatzeko, ezer ez zitzaidala gertatuko erantzun nion. (79)

Haatik, Landak ez ditu beti mutil itxuraz axolagabeak eraikitzen, soilik nesken jarrerekin alderatu nahi dituenean. Izan ere, protagonista diren

mutilak oso sentiberak dira eta aipatutako jokabideetatik urrun daude. Gai horren inguruan Gema Lasartek adierazten du pertsonaia maskulinoen karakterizazio fisiko eta psikologikoa ez dela batere sexista, baizik eta guztiz kontrakoa, zeren Landak normalean pertsonaia maskulino sentikor eta bazterrekoak sortzen baititu (2005, 73 orr.). Alex, adibidez, anti-abenturazalea da, nahigabe heroi bihurtzen den arren. Gurasoak oso abenturazaleak ditu eta horrek euren arteko ulermena zailtzen du. Gainera, etorkizuna ikusteko gaitasuna du, baina ia inork ez dio sinesten. Horregatik, bere lagunartea Ninak bakarrik osatzen du, eta bien arteko erlazioa da bizirik senti dadin beharrezkoa duen bakarra. *Irma* ipuineko protagonista ere bihoztia da oso, batez ere bere arkakuso maite Irmari dagokionez. Mikelek, eskolako ustezko lagunak, ordea, jelsiagatik iruzur egin eta Irma arkakusoa lapurtzen dio. Maltzurkeria horrek protagonistarengan eragin handia du. Amorratuta dago egin diotenagatik eta bere izaeraren alderdi iluna ateratzen du. Ez dago Irma gabe etsitzeko prest: «Irma berreskuratu bezain pronto Mikel txikituko dut! Horixe baietz!».

Ildo horretan, *Irmako* protagonista bezala, badira bidegabekeriak onartu ez eta egoera aldatu nahian irtenbide ezberdinak proposatzen dituzten beste pertsonaia batzuk ere, adibidez, lanpostutik bota duten Opil neskakak duintasuna eta lana berreskura ditzan, greba bitxi bat egiten duten haurrak edo, bere kapitainari leial zaiola erakusteko eta hura mendekatzeko, Dardar kapitain gaiztoa eroarazten duen lorittoa, eta abar. Zuzengabekeriaren aurrean altxatzen diren pertsonaiak dira, beraz.

Orobat, bizitzan ametsak bete ahal izateko arriskatu behar dela pentsatzen dute Landaren pertsonaiak: *Elisabetek*, lehoi hezitzaile izateko, inoiz ikusi ez dituen lehoien parean jarri behar du, eta horrek ausardia eskatzen dio; *Errusikak* dantzari izan nahi du eta, xede hori erdiesteko, beldurrak albo batera uzteko prest dago; *Ahatetxoak*, urpekari bihurtu nahiz, zisneei aurre egin eta bere amaren esanei uko egiten die, harik eta une jakin batean indarrak bildu, ur azpian sartu eta, ezkonberri batzuen ezkontza-eratzuna berreskuratuta, heroi bihurtzen den arte.

Esan genezake beren helburuak lortu nahi dituzten pertsonaia tematiak direla, horrek xamurtasunik kentzen ez dien arren. Gehientsuenak gizatiarrak dira eta ohikoa da ipuinetan pertsonaiok euren kezak, izuak eta gogoetak kanporatzea. Esaterako, *Elisabetek* lehoiei dien beldurra azaleratzen duenean:

Ni behintzat, guztiz kezkatu nongoen. Bat-batean, piztia beldurgarri batzuen aurrean aurkitzeak ikara besterik ez zidan ematen. Ai, ama! (...) Egia zen domatzaile izan nahi nuela, animaliak asko gustatzen zitzaizkidala, baina egia zen baita ere inoiz ez nintzela lehoi edo antzeko piztia baten aurrean aurkitu... Zer egin nezakeen? (23)

Gema Lasartek dioen bezala, Landaren pertsonaia batzuek gizarte aurreratuek berezko dituzten larritasuna eta inkomunikazioa azaltzen dituzte (2005, 67 orr.). Horren adibide garbia da *Krokodiloa ohe azpian* ipuineko protagonista, etxean bakarrik bizi den Juan Jose mutil gaztea. Kontakizunean zehar J.J. izen anonimoaren bidez agertzen da eta horrek pertsonaiaren izaera eta lan metodikoari erreferentzia egiteko balio dezake. Egun batean, lanera joateko esnatu eta ohe azpian krokodilo bat duela ohartzen da. Narrastiak pertsonaia nagusiarengan beldurra sortzen du; animalia, ordea, arazoaren kausa baino, sintoma bat besterik ez da. Bakardadean bizi da J.J., eta bizimodu azkarrak zein eguneroko lan metodikoak bere eritasuna areagotu besterik ez dute egiten. Horregatik, ezinezkoa bihurtzen zaio krokodiloarekiko bizikidetzeta eta medikuarenera joatea erabakitzen du, horrek ere izugarritzko ikara ematen dion arren:

Lotsa eta **beldurra** sentitzen zituen, neurri gogorren bat hartzeko behar larria, eta aldi berean korrika hanka egiteko tentazio eutsiezina. (33)

Beldurraz ari garela, *Kleta bizikleta* kontakizuneko bizikletak, bere ametsa betetzeko, jabeari zoologikora eraman dezan eskatzen dio eta haren etengabeko ezezkoen aurrean greba amaigabea hasten du. Horrek izu-ikara sortzen du protagonistarengan, hura baita bere bidaide eta lankide bakarra: «Bera gabe geldituko nintzela pentsatze hutsak **larritzen** ninduen» (7), «Dena dela, bizikleta horixe da nire lagunik handiena, nire laguntza bakarra eta nire lan tresnarik onena. **Bera gabe, akabo!**» (10).

Hala ere, Mariasun Landaren pertsonaiarik osatuena eta bere adinerako gogoetsuena Iholdi dela esango nuke. Hark duen sentiberatasunak eta arrazoitzeko gaitasunak aho bete hortz uzten du irakurlea, horrek istorioaren sinesgarritasunari inolako kalterik egin gabe gainera. *Iholdi* neskato txiki bat da, bizinahi handikoa, irudimen izugarria duena eta helduen eta haurren arteko logika-ezberdintasunak agerian uzten dituena. Hori guztia, saihestu ezin duen xalotasun puntu batekin. Esandakoa ongi islaturik geratzen da honako pasartean:

Andereñoak ipuin labur bat idazteko agindu digu. Nirea gelako laburrena izan da. Honela zioen:

«Ikastola batean haur guztiak oso txikiak ziren.

Egun batean haur bat galdu egin zen eta zorri batek jan zuen. Eta inor ez zen konturatu».

Amaiera

—Benetan laburra hire ipuina! —esan dit andereñoak eta kezkatua sumatu dut.

Handik pixka batera galdetu dit ea nire ipuina gizon bati erakusten utziko niokeen eta nik baietz erantzun diot. Gizon horrek Sikologo du izena. («Sikologoa», *Iholdi*, 1988: 38)

Era berean, lehenago zerrendatu ditudan ezaugarri horietariko batzuk ere aurki daitezke Iholdirengan: beldurrak dagoenean ez du ezkututzen («Zer egin beldurrak gaudenean»), ausarta da behar denean («Dilijentzia»), sentibera da oso («Autobus zaharra»), barne mundu naroa du eta sortzailea da («Marraskia», «Sikologoa»), bizinahia du («Zigarroak»), neska-mutilen arteko aldeak ozenki nabarmentzen ditu bere gogoeten bidez («Kike», «Dilijentzia», «Txolarrea»), eta helduen eta gaztetxoek arteko ulermen falta primeran islatzen du («Sikologoa», «Kometa»). Gema Lasarteren aburuz, «agian Iholdi da Landak sortu duen pertsonaiarik indartsuena eta kritikoen»¹¹ (2005, 71 orr.). Marijose Olaziregiren ustez, «Sikologoa» kontakizuneko «bigarren maila narratiboan azaltzen zaigun neskatilaren ipuin horrek pentsakor uzten gaitu: idazleak haurren sentimenduetan arakutzen duen abileziaren adibide garbia dugu» (1999, 35 orr.).

Iholdi pertsonaiaren eraikuntza, gainera, ez da ipuin bilduma horretan amaitzen eta *Amona, zure Iholdi* (2000) eta *Marina* (2005) narrazioetan ere topa dezakegu, agian xalotasun kutsu hori gaindituta.

Izeba txikia ipuineko Ainhoek Iholdiren antza hartzen du neurri batean, oso buruargia baita eta bere adineko neska batengan ohikoak ez diren hausnarketak egiten baititu. Zortzi ahizpetatik txikiena izateak dakartzan abantailez jabetzen da (aitarekin denbora gehien pasatzen duenetarikoa da, ahizpengandik irakaspen ugari jasotzen duena, eta abar), baina tristurak ere ekartzen dituela onartzen du, esate baterako, etxean neska «gehiegi» direla-eta, amaren zimurrak «sakondu» egiten direla ohartzen da. Halakoetan, Ainhoek pentsatzen du mutila izan behar zuela, eta ez neska.

Landaren pertsonaia batzuk nerabezaroan daude eta narrazioan zehar inimizazio erritu batzuk gainditu behar dituzte, beren familien arreta bereganatu eta guztiz onartuak izan daitezten. Julien Ries antropologoak adierazten duenez, erritu horiek irakaspen bidez taldean onartua izatea dakarte. Inimizazio errituetan, «egoera batetik besterako pausoa ematen da, bizitzaldi batetik besterakoa»¹² (1994, 21 orr.). Are gehiago, pertsona bat hurrengo aldira igaro dadin, jada existitzen dena, zaharra dena, ezeztatu behar du. Horrela azaltzen dira *regressus ad uterum* edo «uterora itzultzea» eta heriotzaren erritu sinbolismoa (ibid., 17 orr.).

Nire eskua zurean liburuko Xabier pertsonaiak amaren bikote berriarekiko ezinikusia sentitzen du, aita zenaren tokia bete nahi duelakoan. Gorroto horrek itsututa dago eta horregatik bere bizitza baldintzatuko duen asmoaren berri ematen digu: «Gaur goizean, [ama, bere nobioa eta ni] kaletik paseatzen genbiltzala, ihes egitea erabaki dut» (7). Une horretatik aurrera kontatzen zaiguna baserri abandonatu batean igarotako orduetan zehar egi-

¹¹ «Quizás *Iholdi* sea el personaje más fuerte y crítico creado por Landa» (2005, 71 orr.).

¹² «se da un paso de un estado a otro, de una fase vital a otra nueva» (1994, 21 orr.).

ten dituen gogoetak dira. Protagonistak eguneroko bat idazten du eta irakurlea bere hausnarketan lekuko zuzen bilakatzen da. Eguna, baina, badoa, eta gaua heltzen da. Loak hartu ezinean, hoztuta dago eta jasangaitza zaio bakarrik egotea. Idazketa prozesuaren bidez argi geratzen da barne gatazka zentzugabe batek eraman duela egoera horretara eta amaren beharra sentitzen duela: «Ama, ikusiko baninduzu zure besoetan hartuko nindukezu, zure ile leuna usaintzen, zure bihotzeko taupadak entzuten loak hartuko ninduke, nire eskua zurean» (60). Arrisku egoerak protagonistaren jarrerak aldatuta bat ekartzen du. Badirudi amaren «sabelera» bueltatzeko beharra duela (cfr. goiko aipua) eta, hortaz, aurrekoa ukatu eta bizitza berri bati hasiera emateko prest dagoela pentsa daiteke. Anabel Sáizen ustez, ordea, amaiera mingarria da, bere aburuz Xabierrek ama agurtzen baitu (2007, 16 orr.).

Katuak bakar-bakarrik sentitzen direnean ipuineko Maider protagonistak ere barne-gatazka bat bizi du. Neskak katu gosetu bat topatzen du kalean eta etxerako hartzen, zaintzeko asmoz. Hasieran etxeko guztiek begi onez ikusten dute apopilo berria, amonak izan ezik, eta Ofelia katua Maiderren bizitzako erdigune bihurtzen da, harekin identifikatzera heltzeraino:

«Ilunabarretan katuak bakar-bakarrik sentitzen dira. / Badakit hori Ofelia askotan jangelako mahaira igora eta leihorantz begira aurkitzen nuelako, (...) malenkoniatsuki (...) / Halakoetan, Ofelia besoetan hartu eta tristura arintzeko betondoa laztantzen nion». (7)

«Neu ere, azken bolada honetan, triste eta arraroa sentitu naiz maiz, gehienbat ilunabarretan». (*ibid.*)

Hala ere, ez da katuaren izaera berbera duen bakarra:

—Berez, katua oso abere berezia dun —esan zidan [amak]—. Nor-tasun handikoa. Nahi duenean hurbiltzen dun, gu beraiengana gertatzen gaitun bezalaxe. Bere independentzia gordetzen din beti eta hori errespetatzen ikasi behar...

—Hire ama ere horrelakoxe (sic) dun... (27)

Izaeraz gain, katuaren izenaz ere bada zer esana, zeren ez baita kasualitatea katuari Ofelia deitzea, Maiderren amak *Hamleteko* pertsonaia horren papera antzestu izan duelako inoiz.

Kontakizunean zehar katuaren aitzakia erabiltzen da Maiderrek jasaten duen krisia azaltzeko. Bere gurasoak banandu beharrean dira, amaren aktorea-lanbidea aitari gustatu ez eta jasanezina bihurtzen delako bien arteko harremana. Orduan, Maider katuarengan babesten da, baina hori ere galtzen du, katua baserri batera baitaramate gurasoek, alabaren nahiaren kontra. Maider, katuak baserriatik ihes egin duela jakin bezain pronto, haren bila abiatzen da. Baserriko seme Xantirekin bazterrak miatu ondoren, ba-

sora iristen dira. Baserritarrak, iluntzen ari delako desenkusarekin, etxeratu behar duela esan eta alde egiten du, Maider katuaren bilaketan bakarrik geratuz:

Lasterka hasi nintzen bide hartatik barrena, mendian sartu zen lainoa lanbro fin bihurtzen zen bitartean. Dena gaizki ateratzen ari zitzaidan, eta ernegatuta eta etsituta sentitzen nintzen. Bihotza jauzika neukan sabeletik eztarrira eta eztarritik burura, ikaratuta. Bai, oso izututa nengo. (79-80)

Maider inimizio erritu baten erdian dago eta arrisku-froga hori gaindituta, ordura arte zituen bi arazoei aurre egingo die katuaren bilaketaren bidez:

- a) Alde batetik, bere burua aurkituko du eta heldutasunera iristeko pausoa emango, katua berriro ikusiko ez balu ere, egoera hori onartzeko gaitasuna erakutsiz («Eta Ofeliarekin gertatutako guztiaz gogoratzen nintzen... eta inork esaten ez bazidan ere banekien ez nuela ziur asko berriro ikusiko», 87).
- b) Beste alde batetik, katuak ama irudikatzen duela pentsatzen badugu (gogoratu izaera bertsua zutela), eta amak bere lanagatik ordu asko etxetik kanpo pasatzen dituela kontuan hartuz, alabak katua kausitzeak ama berreskuratzeko bidea zabaltzen du.

Protagonistaren bidaia fisikoa barne-bidaia bihurtzen da eta bukaeran nekeak eragiten dion logurak araztu egiten du bere gogoan, bizitzaren beste etapa batean sartzeko, lokartu behar balu bezala. Are gehiago, kontaketa bera ere onuragarria da beretzat: «(...) gertatutako guztia hasiera-hasieratik **kontatu behar dudala uste dut**. Ofelia kalean aurkitu nuenetik gaur egun arte, gehien bat **gogoak hala agintzen didalako**, ez dakit zergatik» (13).

Ezustean, baina, katua azaldu egiten da eta hara zer esaten digun Maiderrek:

Egia esanda, ondo ezezik (sic) diferente sentitzen nintzen, desberdin. Ez dakit nola esan, **bidai luzea** egin izan banu bezala, **handiagoa**, **zaharragoa** edo... pisu handi bat gainetik kendu izan banu bezala, ez dakit hobeto esaten. (10)


Barne gatazkaz gain, arazo politiko-sozialak ere ageri dira Landaren ipuinetan. *Potx* ipuinean, esaterako, egoera berezi baten aurrean kokatzen gaitu: «ez» esatea debekatua dagoen herri batean. Kontakizunaren protagonista Samuelson da eta, bere sormenak eta adierazteko beharrak bultzatuta, salbatzaile bihurtzen da, «ez» esateko «potx» hitza asmatuz.

Bestalde, *Inurri bitxia*-n fisikoa aldatu nahi duen txindurri bat dugu, zainari bere gorputza gustatu ez eta kirurgia estetikoan egiten dioten: hanka

bat kendu, burua handitu, antena parabolikoa jarri eta urdin argiz margotu. Bera aldaketarekin guztiz pozik dago, baina gainerako inurriek taldetik kanporatzen dute, estralurtarra delakoan. Gema Lasarteren iritziz, ipuin horrek edertasunaren ereduarekin apurtzen du, Landarentzat garrantzizkoena ez baita jendearen gustuko izatea, baizik eta nork bere burua gogobetetzea (2005, 74-75 orr.). Inurriari ez zaizkio atsegin inguruak ezartzen dizkion arau batzuk eta horregatik desio du aldaketa. Interpretazioa ezaugarri fisikoetatik haratago eramanez, esan genezake inurriak berezitasun propioak nahi dituela, taldeak eskaintzen ez dizkionak, eta horregatik, amaieran, bere ingurukoek baztertu arren, pozik dago, bere benetako nortasuna finkatzea lortu duelako.

Inurri hori ez da bere estetikarekin kezkatua dagoen bakarra, zeren Julietak ere itxura aldaketa bat nahi baitu, eta horretarako tartak jateari uzten dio. Anabel Sáizek horrela dio Julietaren jarrerari buruz: «(...) bere burua gustuko izateko beharra sentitzen du, Romeok ere bera gustuko izan dezan»¹³ (2007, 15 orr.).


Pertsonaia berezi gehiago ere badaude: zuhaitzekin mintzatzen den eta hegan egiten dakien Partxela pertsonaia fantastikoa, bere bizitzarekin aspertuta abenturari ekiten dion galtzerdi suizida (esekitokitik bere burua botaz bere bizia arriskatzen duena), bi kultura guztiz ezberdinen arteko kontrastea (euskalduna eta Afrikako lurralde batekoa) naturaltasunez bizi duen Kaskarintxo, detektibe lanak egiten dituen 60 urte inguruko Mikaela zerbitzaria, gosetea dela-eta filosofatzera beharturik den arratoi taldea eta abar.



1. irudia

¹³ «(...) siente la necesidad de gustarse a sí misma para gustarle también a Romeo» (2007, 15 orr.).

Pertsonaien nolakotasun gehienak esplikatuta, interesgarria iritzi diot Gema Lasartek egindako estatistikak aurkezteari; bertan, Landaren pertsonaien sailkapena egin eta haien proportzioak islatzen ditu (2005, 70 orr.). Datuok grafikoetan jarri ditut, ezberdintasunak nabarmenago ikus daitezten:



2. irudia

Gema Lasartek Landaren pertsonaien artean emakume protagonisten presentzia handia dela nabarmentzen du (ik. bigarren irudia) eta, gainera, estereotipoak apurtzen dituzte eta beste aukera batzuk eskaintzen. Lasarteren hitzetan, pertsonaiok nortasun propioa eraikitzen duten emakumeak dira (2005, 70 orr.). Horrez gain, beren lanbideak ere ez dira tipikoak (*ibid.*, 72 orr.), gogora ditzagun, bestela, detektibe lanetan ari den Mikaela eta Elisabete lehoi domatzailea. Dena den, bada Lasartek ematen duen beste datu interesgarri bat: Landak ez ditu beti rolak iraultzen, zeren eta badira ohiko ama, amona eta neskatxarena egiten duten pertsonaiak, baina horiek ere modu kritiko eta dinamikoan aritzen dira (*ibid.*).

Landaren literaturan etxetik at lanean dabilen emakumezko asko ageri dela azpimarratzen dute Xabier Etxanizek eta Maite Mendiburu, nahiz eta ñabarduraren bat ere egiten duten: «(...) *Izeba txikia* liburuan esne-saltzailea (eta igarlea) emakumezkoa da, ama oso mugitua da... baina halere, aitari buruzko aipamen bakarrenetan lilura azaltzen da (...) *Txan fantasma* liburuan ere andre bat dago lanean barraketan; Karmen-txu emakume batek aurkitzen du... baina hala ta (sic) guztiz sendagilea gizonezkoa da, eta Karmen-txu arraroen etxera daramaten erizainak gizo-

nezkoak ere» (1990, 94 orr.). Horren haritik, zehaztapen bat egingo nuke, *Potx* ipuineko Dama Adintsuari eta *Kaskarintxo* narrazioko Txoan pertsonaiari dagokienez, bien artean dagoen nolabaiteko paralelismoa eta funtsezko ezberdintasuna aipagarriak baitira. Kidetasuna pertsonaien adin-ean eta duten boterean datza, nahiz eta bakoitzak bere erara erabiltzen duen ahalmen hori. Lehenengoa, herriko agintaria da eta hark dioena betetzen da, botere diktatoriala du (beraz, konnotazio negatiboa, emakumea izanik ere); bigarrena, berriz, tribuko zaharrena eta jakintsuena (irudi positiboa, gizonezkoa, ordea).

Bestalde, animalien artean bi ezberdintasun handi daude: batzuetan protagonista dira (ik. bigarren irudia) eta orduan beste edozein motako pertsonaiaren ezaugarriak dituzte; beste batzuetan, aldiz, bigarren mailakoak dira eta pertsonaia nagusiarengan eragiten dute, esate baterako, gizakien- gan sentimendu bitxiak sorrarazten dituzte, batzuetan lasaitasun sentipena (katuak Mainerrengan, adibidez) eta beste batzuetan urduritasuna (krokodiloak J.J.-rengan).

Laburbilduz, ezin uka daiteke Landaren unibertso literarioa osatzen duten pertsonaiak bereziak direnik. Bizitzaren aurrean jarrera ausarta erakusten dute, batzuetan gehiegi arriskatzeraino (*Galtzerdi suiizidan* bezala). Euren ideiei tinko eusten diete eta, helburuak lortzeko bidea samurra izan ez arren, saiatu egiten dira. Baztertuak dira, baina hori ez da etsitzeko arrazoi, alderantziz baizik, bizitzan lortu nahi duten hori eskuratzeko bultzada baizik. Batzuetan alderrai ibiltzen dira, baina amaieran beti aurkitzen dute bizitzen jarraitzeko arrazoi onen bat, dela maitasunaren bidez, dela lagun- tasunaren bitartez. Anabel Sáizek, *Krokodiloa ohe azpian* liburuko protagonisten harira, honakoa aipatzen digu:

Mariasun Landa [depresioa edo angustia bezalako] arazo horiei buruz sotil eta fin aritzen da, orobat samurki, nahiz eta berak ongi dakien krokodiloa ez dela inoiz guztiz desagertuko, behin eta berriz bueltatuko dela, baina, gutxienez, harekin bizitzen ikas daitekeela, Juan Josek antzeko sintomak dituen bere lankidearengan aurkitzen duen maitasunari esker [lortzen duen bezala].¹⁴ (2007, 15 orr.)

Esperantzarako atea zabalik geratzen da, bizitza hobea eta ederrago baten itxaropena irudikatzea eta arazoak konpontzea posible dela adierazten digun atea.

¹⁴ «Mariasun Landa trata esos problemas con tacto y exquisitez, no exentos de ternura, aunque ella sabe bien que ese cocodrilo nunca desaparece del todo, que vuelve una y otra vez, pero, al menos, se puede aprender a vivir con él, gracias al amor que encuentra (...) en un (sic) compañera de trabajo que padece los mismos síntomas» (2007, 15 orr.).

3. SOILTASUNAREN ATZEAN EZKUTATURIKO SORKUNTZA OPAROA

Psikoanalisiak hasieratik nabarmendu zuen haurren nortasunaren erakuntzan literaturak zuen garrantzia (Colomer, 1999, 17 orr.; Borda, 2002, 61 orr.). Teresa Colomerrek dio haur liburuen idazkerak irakurleari laguntzen diola forma literario gero eta zailagoak menderatzen (1999, 21 orr.). Sánchez Corralek, bere aldetik, metaforak ulertzeko beharrak ikaslearengan pentsamendu autonomo eta dibergentea garatzeko egokiak diren gaitasun adierazkor eta kognitiboak pizten dituela defendatzen du (1995, 59 orr.). Haatik, M.^a Isabel Bordak esaten duen bezala, helduak eszeptikoegiak izaten dira haurrei zuzenduriko metafikziozko testuen onurari dagokionez (2002, 96 orr.). Haren iritziz, haurrek narrazio mota horiek ulertzeko zailtasunak izan ditzaketen arren, ez zaizkie ukatu behar (ibid., 97 orr.). Beraz, adituen arabera, idazleek, hizkuntza literario egokia erabiliz, haur eta gazteen heltze prozesuan eragiten dute.

Idazle errenteriarrek asko zaintzen du hizkuntza poetikoa eta ipuinaren zailtasun literarioaren arabera hautatzen ditu baliabideak. *Ipuomamua* telebista saioan Mariasun Landak berak aitortu zuen *Iholdi* soiltasunetik idatzi zuela, baita narrazioetako hitz bakoitza oso neurtua zuela ere («Sikologoa» ipuina da horren adibide). Horregatik, narrazioa haur baten ahotik kontatzen denean, esaldi motz eta sinpleak ahozko moldeekin nahasten dira, errealismo handiagoa ematearren. *Amets uhinakeko* «Opil» narrazioan, esate baterako, honelako esaldiak irakur ditzakegu: «**Ba, begira**, behin Txomin txikiak kometa bat egin zuen (...)» (108). *Amona zure Iholdin* ere gauza bera gertatzen da: «(...) beti dabilta haurrek botatzen dizkieten ogi apurrak jaten **eta horrela**» (9). Batzuek hizkera horri sinplea irizten diote, baina horrek ez du esan nahi arrunkeria eta erraztasunera jotzen denik, noski. Severino Callejak, hain zuzen, hau azpimarratzen du:

idazleak gai eta autuak irakurlearen garapen psikologikoaren mailari egokitu behar izateaz gain, bere mezuen egitura moldatu behar duela: maila foniko, morfologiko, sintaktiko zein lexikora. Emaidza gisa bakuntasuna erdietsiko duenik izango da, baita erraztasuna lortuko duenik ere, eta askotan haurra gatibatuko duten efektu erritmiko, ludiko eta burutsuez aberastuko duena.¹⁵ (1987, 60 orr.)

Oro har, ahozko baliabideek garrantzi handia dute Landaren literaturan eta erraza da ipuinetan ahozko tradiziotik hartutako kanta zati bat (*Kaska-*

¹⁵ «Por eso, además de adecuar temas y asuntos conforme al grado de evolución psicológica del lector, el autor especializado altera también —adapta— la estructura de sus mensajes a todos los niveles: fónico, morfológico, sintáctico y léxico. Habrá quien obtenga como resultado la simplicidad y quien logre la sencillez, y a menudo la enriquezca de cuantos efectos rítmicos, lúdicos e ingeniosos cautivan al niño» (1987, 60 orr.).

rintxon «Andre Madalen», *Aitonaren txalupan* «Itsasoa laino dago», *Errusikan* «Ttun kurrun kuttun» lo kanta ezaguna) edo esaera zaharren bat topatzea («Egon lotan eta jango dun mehe», *Katuak bakar-bakarrak*, 73). Horrez gain, onomatopeiak erabiltzen ditu, bai protagonisten izenekin hitz jokoak egiteko (Taxizapataren jatorrizko izena «Z' Apa tapatapa» da), bai gertaera baten soinua imitatzeke («*Klin, klan, klin*, irekirik zeuden leihoe-tako kristal bat ere ez zen osorik gelditu», *Kaskarintxo*, 18). Oso noiz-behinka bada ere, haur hizkerako hitzen bat edo beste sartzen du: «Gidatzen uzten zidan Marinak, eta Migeltxori berdin zion zeren umea da, ia-ia **ninia** (...)» (*Marina*, 16).

Mariasun Landak bere ibilbidearen hastapenetik beretik hizkuntzarekin jolas egiteko erakusten duen grina nabarmena da (*Amets uhinakeko* «Txaf planetaf» ipuinean «-af» atzizkia gehitzen die hitz batzuei). *Julieta, Romeo eta saguak* ipuinean egiten duenak liburuko antolaketarekin du zerikusia, atalak igarkizun moduan planteaturiko galdera/erantzun dibertigarrien arbera sailkatzen baitira: «1. Zer da paradisua? Tarta jatea eta rock-a dantzatzea»; «2. Zer da sagu tontoa izatea? Katuzarra ondoan egon eta ezer ez usaintzea»; «3. Zer da infernua? Tartarik ez eta dieta egin beharra». Tonu jostagarri horretan, aitzitik, esakune filosofikoak aurki daitezke Anabel Sáizen arbera (2007, 11 orr.).

Dena den, Mariasun Landak gehien erabiltzen duen literatur baliabidea ironia da, kritika egiteko tresna ezin hobea. Batzuetan ironia eta umorea nahasturik ageri dira; bestetan umoreak irakurlearen irribarrea bilatzen du, ironiarik gabe. Ildo horretan, Xabier Etxanizek dio umorea batzuetan literatur lanaren helburu dela eta, besteetan, ideiak, mezuak edo gertaerak haurrei modu atseginago batean eskaintzeko asmoz erabiltzen dela (1997, 271 orr.). Landaren kasua bigarrena da. Izan ere, bere istorio gogorak ironiaren eta umorearen bidez samurtu egiten dira, laztasun hori leundu egiten dute. Azpimarratzekoa da, gainera, tonu hori zein unetan jarri ederki asmatzen duela. *Potx* ipuinean, esaterako, herritarrek ezetz esatea debekatuta dutenez, badira egoera irrigarri batzuk:

- Aurten, herriko gastuak hazi direnez gero, zergak handituko dira. Ados al zaudete? — galdetzen zieten noizbehinka agintariek herritarrei.
- Bai! — erantzuten zuten herritarrek aho batez. (10)

Egoerak ez ezik, ofizioak ere nahiko bitxiak dituzte Landaren pertsonaiek. Horietako bat *Kleta bizikletako* protagonistarena da: garai batean «tximientzako galtzontzilo-saltzaile» (28) izan zen, geroago, «*Txikilandia* zirkuko matxinsalto-domatzailea (...)» (14) eta, azkenik, «Udaletzeko birao-biltzailea» (8).

Elefante txori-bihotza ipuinean «Elefantenews» aldizkariko iragarkiak irribarre bat sorrarazten dio irakurleari, batez ere ordaintzeko moduari erreparatzean:

Interes kulturalak dituen **elefante** talde batek **maistra** dinamiko eta abenturazale baten beharra du. Etxebizitza oihan **afrikar** batean. **Dieta** vegetarianoa. Soldata: Ehun tona **banana**.¹⁶ (12)

Bestalde, segur aski irakasle edota ikasle ginen garaia gogorarazten digun gertaera bat bada *Nire eskua zurean* narrazioan. Anttonek, protagonistaren lagun-minak irakasleari «ea berak zertarako ikasi behar zuen ingelesa basozaina izan nahi bazuen» galdetzen dio (29) eta hark, arrazoiren bat eman nahian, hauxe erantzuten:

agian egun batean ingeles batzuk mendian galduta aurkituko zituela eta haiekin hitz egin ahal izateko balioko ziola orain ingelesa ikasteak... Algarak Londresen ere aditu zirela uste dut. Geroztik eta mendian barrena abiatzen garenean, «goazen ingeles batzuk bilatzera» esan ohi du Anttonek harrokeria handiz. (29-30).

Julietta, Romeo eta saguak ipuinean ere badira irakurleari barrea eragiten dioten une jakin batzuk. Julietak dieta hasten duenetik saguak goseak akabatzen daude eta, tarta gehiago egiteko asmorik ez duela ikusita, pentsatzera behartuak daude, «SAGU GOSETI ETA OFENDITUEN ASANBLADA» (77) egiteraino. Umorez, baina oso modu fin batean egiten da kritika: saguak (gizakiak bezala) muturreko egoeretan soilik daude pentsatzera behartuak, bitartean bizimodu atsegina izan baitute.

Krokodiloa ohe azpian kontakizuneko narratzaileak muturreko egoerak deskribatzen dizkigu. J.J. pertsonaiak medikuaren ordutegiaren berri ematen digu: «Bizkorregi sendagilea. *Goizeko hamaikak bost gutxietatik hamaikak eta hogeita bostera arte*» (29). Egunean hogeita bost minutu lan egiten duen medikuak, gainera, honako tratamendua jartzen dio J.J.-ri: «KROKODIFIL pilulak, bat goizean eta beste bat gauean; KROKODITALIDON eferbeszentea jatorduetan. Astean bi» (36). Hasierako ironia ia oharkabean parodia bihurtzen da eta horren gailurra errezeta-aren azalpena da:

Krokodifil pilulak

(...)

Indikazioak:

Krokodifila eraginkorra da larridura, abandono sentimentua, babes falta setatsua eta gisa horretako sintomak dituzten gaitzetan. Krokodifila harreman premia larriak tratatzeko da gomendatua. Bakardade eta sexu autokudeaketa egoeretan sortzen dira holakoak. (44)

¹⁶ Jatorrizko letrakera.

Halaber, bigarren mailako pertsonaia estereotipatuek (J.J.-ren amaren rola betetzen duen Eulalia andrea, harakin garai, indartsu eta zakarra, Elena bekadun atsegin eta langilea, esaterako) baliabide horiek indartzeko balio dute.

Ironia eta umorea ez ezik, konparazio originalak ere maiz aurkitzen ditugu Mariasun Landaren literaturan, batez ere animaliekin egindakoak.

Aitonaren txalupan, esaterako, Maider bakarrik itsasoratzen den lehen aldian nola sentitzen den ulertzeko narratzaileak «Txalupatxo kulunkari batean eserita, apur bat kokilduta, itsaso zabalean erori den **euli baten gisa**» dagoela dio. *Maria eta aterkia* ipuinean ere txikigarritasuna adierazteko konparaketa hau dugu: «**arkakuso bat bezain** txiki eta bizia zen esperantzaz izpia» (29). *Katuak bakar-bakarrik sentitzen direnean* liburuko Maiderrek, berriz, bere inguruan gertatzen ari denaz hausnartzeko ohitura du eta amona kexu zaio:

Hausnartu hitza asko erabiltzen zuen nirekin, buelta asko ematen nizkiola buruari, **behiak** belarra mastekatzen duten (sic) **bezala** aritzen nintzela ni ere neure pentsamenduekin (...) (8).

Ipuin berean, Maider urduritu egiten da bere katu maiteak baserritik alde egin duela jakitean: «Sustoaren sustoz, bihotza jauzika hasi zitzaidan **kanguru baten modura...**» (9). Are gehiago, katu bezperatik falta zela esaten diotenean ia bihotzekoak ematen dio: «(...) arrainontzitik atera eta airean kulunkatzen nuenean **ziprino gorria** sentitzen zen **bezala** sentitu nintzen neu ere» (9).

Metafora eder batzuk ere atzeman daitezke Landaren testuetan. Gainera, egoera guttiz ezberdinak irudikatzeko erabiltzen dira: pertsonaien nolakotasuna islatzeko («Ilargia, gauaren dama bakartia», *Maria eta aterkia*, 11; «Bizikleta zanpatu bat besterik ez naiz!», *Kleta bizikleta*, 7), baita sinekdoke metaforiko baten bidez *Errusika* arkakusoaren saltoa deskribatzeko («Orduantxe, Errusikak **jauzi egin zuen** Madamerengandik Mitxelengana, **belaualdi batetik bestera** alegia», 39), edo maitasuna zertan datzan azaltzeko:

Pospoloak, pizten denean, txinpartak ateratzen ditu, erotu egiten da, eta bezltuz eta bihurrituz joaten da, pasioaren poderioz... Bere maitasunaren sua zigarroari pasatu eta berehala itzaltzen da. Eta hau ere erre egiten da, baina hainbeste espantu gabe. Zigarroa denen begien aurrean kontsumituz joaten da, dotoretasun eta ohore handiz, harik eta errauts bihurtzen den arte. Horregatik esaten du maitasun istorioa ikusgarria eta tragikoa dela. (*Galtzerdi suizida*, 38-39)

Irakurleari tentsio unek baretzeko metodo gisa-edo, *Elefante txori-bihotzako* narratzaile-protagonistak muturreko metafora paradoxiko bat

egiten du, elefanteen beldurra irudikatzeko: «une batez, elefante guztiek arkakuso ikaratu baten bihotza izan zuten» (57). Ildo horretan, interesgarria da Teresa Colomer adituak baliabideak puzteari buruz dioena:

Haurrentzako liburuetan umorea haiek ongi ezagutzen duten munduaren funtzionamendu-arauen iraultze edo urratzean oinarritzen da askotan. Hutsegiteak edo gehiegikeriak haiek ulertzen duten umorearen zati garrantzitsua dira.¹⁷ (1999, 29 orr.)

Sinboloei dagokienez, bi nabarmendu nahi nituzke atal honetan: alde batetik, *Marlene eta taxizapata* ipuineko katuaren kolorea eta, bestetik, *Krokodiloa ohe azpian* narrazioko krokodiloa.

*Marlene eta taxizapata*ko katuak gaztetan urdin kolore berezia du, helduaroan, berriz, morea da eta urdin iluna zahartzaroan. Bizitzako etapak ez ezik, bizi-indarra ere irudikatzen da kolorearen bitartez. Areago, kantari gisa lanean ibiltzeko musika estiloa ere zaharkitua zela eta kolorea lehenagokoa ez zuela esanez agurtzen du betiko antzokiko enpresarioak katuak. Atsekabetuta, ispiluan begiratzen du katuak bere burua: «Egia zen. Kolore urdin morexka ilunagoa zen, higtuagoa, ia itsas urdin izatera iritsia zen» (22). Gainera, zalantzarik gera ez dadin, narrazaileak esplizituki ematen du kolore-aldaketaren esanahia:

Bai. Marlene aldatuta zegoen.

Marlene zahartu egin zen, eta inoiz ez zen berriro ispilu aurrean jarri. Bizitza gogorra da kateme artistentzat, eta are gogorragoa kolore urdinekoak badira eta kolorea urteekin aldatzen bazaie. (23)

Bigarren adibidean, krokodiloa ohe azpian ezkutaturik dago, baina sinbolo horrek adierazten duena oso agerian dago errealitatean: beldurra, larritasuna, depresioa, bakardadea, inkomunikazioa eta abar. Bizi garen gizarteko arraildurak erakusteko erabiltzen da narrastia. Krokodiloa, gainera, dinosauroen garaikoa izanik, berariaz hautatua dateke, aipatutako gaitzak bera bezain zaharrak direla iradokitzeko. Halaber, Hans Biedermannen sinboloen hiztegiiko lehen lerroetan krokodiloak dragoia gogorarazten duela esaten da eta Biblian aipatzen den Leviatán munstroa bezalakoxea dela, garai primitiboetan kaosaren izakietako baten berdin-berdina (1993, 115 orr.). Aurrerago, Ernst Aeppli psikologoaren hitzak hartuz, krokodiloa gure barne-energien sinbolo ezkorra dela ere aipatzen da (ibid., 116 orr.) eta ipuin honen kasuan behintzat hala da.

¹⁷ «El humor en los libros para pequeños se basa muy a menudo en la inversión o transgresión de las normas de funcionamiento del mundo que ellos ya dominan. Las equivocaciones o las exageraciones configuran una parte importante del humor que comprenden» (1999, 29 orr.).

Egiturari dagokionez, esan behar da ipuin baten antolamenduak irakurketa prozesuan eragiten duela eta haren harrera baldintzatzen. M.^a Isabel Bordaren hitzetan, haur eta gazteentzako narrazio gehienek egitura lineala dute, asaldadurarik eta etenik gabea (2002, 83 orr.). Teresa Colomerrek ere hala uste du, haurrek salto kronologikoak ulertzeko zailtasun handiak dituztela azpimarratuz (1999, 34 orr.). Mariasun Landaren obretan modu kronologiko batean kontaktzen dira gertaerak, nahiz eta noizbehinka *in extremis* edo amaieratik hasitako kontakizunak ere badiren. Halakoetan, amaierak baino, pertsonaiek hara heltzeko gainditu behar izan dituzten egoerak dira istorioen zati zirraragarrienak.

Kontakizun asko eskutitz, eguneroko edo lehiaketaren batera bidalitako ipuin gisa moldatuta daude. Haietan, pertsonaia batzuek sortzaile (eta batzuetan ipuin-kontalari) rola betetzen dutenez, testuetan idazketari buruzko gogoetak topa ditzakegu. Hori dela eta, batzuetan, kontaktzen dena ipuina ote den zalantzan jartzen da testuan bertan: bai hasieran («Orain kontatuko dudana ez dakit ipuin bat den ala ez», *Haginak eta hilobiak*, 5), baita amaieran ere:

Folio txuria hartu eta idazten hasi nintzen. Izenburua berehala otu ziztaidan: *haginak eta hilobiak*.

Hurrengo egunetan, ipuina idazten jarraitu nuen, baina hiztegian gehiegi begiratu gabe, oso aspergarria delako.

Baina ez dakit idatzi dudana ipuin-ipuina den ala ez.

Deo Gratiasek irakurri du eta gustatu zaio.

Besterik ez.

AMAIERA

Iholdi. (ibid., 44-45)

Antzeko bidetik egiten da hausnarketa *Sorgina eta maisua* ipuinaren amaieran: «Eta zorionsu izan al ziren hil arte? Ideiarik ez! **Ipuin eder guztiak ezkontzarekin amaitzen baitira**, eta ezteiak pasatu ondorengoa inori ez baitzaio axola. Eta niri ere ez» (45).

Kleta bizikleta kontakizunaren bukaeran idazketa prozesua iraultzen duen baieztapena dago:

Egun batean, nire oroitzapenak idatziko ditut, orduan bai jende guztia harrituko dela! (...)

—Horixe baietz, Kleta! Atal berezia eskainiko dizut... Eta gainera badakit zer izenburu jarriko diodan, esate baterako... **KLETA BIZIKLETA!** (60)

Metafikzioa, idazketa prozesuaz ez ezik, fikzioaren eta errealitatearen mugez aritzeko ere baliagarri zaio Landari eta, esaterako, sirena batek Errusika arkakusoari egindako aitorpenaren bidez, bere presentzia justifikatzen du:

—IRUDIMENAREN erresuman [bizi gara sirenak]. Sirenak ez gara mundu honetakoak, fantasiaren mundukoak baizik. Ez gara zu bezain errealak, baina hala ere existitzen gara! (65)

Testu horrek ematen dion jokoaz gain, bere narrazioetarako baliatzen dituen hainbat obra klasiko eta pertsona(ia) esanguratsuek aberastu egiten dute idazle honen lana. Nabarmena den baten bat aipatzearen, *Julieta, Romeo eta saguak* ipuineko izenburua gogoratuko nuke, Shakespeareen lan ezagunari erreferentzia egiten diona, edota *Katuak bakar-bakarrik sentitzen direnean* ipuinean katuak Ofelia izena izatea, *Hamlet* antzerki-laneko pertsonaia batek bezala.

Julieta, Romeo eta saguak obrara itzuliz, atalen izenburuetan Bibliaren oinarritzko kontzeptu batzuk azaltzen dira, esate baterako, paradisia eta infernua. Baina, agian, hain esplizituki agertzen ez den arren, gose direnean saguek duten antolatzeke moduak George Orwell-en *Abereen etxaldea* gogorazten duela esango nuke (batzarrak eginez, bakoitzak zeregin bat hartuz, matxinatzeko prestatuz eta abar).

Bestalde, *Elefante txori-bihotza* kontakizunean irakasleak Afrikarako egiten duen ekipoari Rudyard Kipling-en liburu bat hartzen duela dio, nora bidaiatuko duen ikusita *Oihaneko liburua* izango dena, ziurrenik.

Idazleaz gain, obra batzuk ere aipatzen dira, edota ahozko literaturako pertsonaia ezagunak: *Nire eskua zurean* narrazioan neskak bordara eramateko Xabierren proposamenari Anttonek erantzuten dio «(...) Robinson Crusoeak berak ez zuela neskarik izan bere irla famatu hartan, mutil beltz jator bat baizik Ostiral izena zuena...» (31). *Sorgina eta maisuan* Grimm anaiek bildutako Hansel eta Gretelen abenturak kontatzen dizkie irakasleak haurrei.

Krokodiloa ohe azpian lanari dagokionez, Kafkaren *Itxura-aldaketarekin* zerikusia duela esango nuke, izan ere, antzeko *leitmotiv*-a daraman kontakizunean (hau da, pertsonaia bera krokodilo bihurtzen ez bada ere, esnatzean ohe azpian aurkitzen duen krokodiloak ispilatuko du bere izaera ezkutua), baina betiere haurrentzat egokiturik. Manu López Gasenik dioen gisan, «gizatasuna galtzeko zorian den gizakiak bere burua ezagutzeko zailtasunak ditu, edo *gauza hori* bera dela onartzea kostatzen zaio»¹⁸ (2004, 180 orr.). Halaber, J.J. esnatu eta ohepean begiratzen duen bakoitzean, Monterrosoren narrazio labur eta ezaguna etortzen zaigu gogora, aldaketa batekin, noski: «esnatu zenean *krokodiloak* bertan zirauen» (Sáiz, 2007, 15 orr.).

Etxeko literaturara etorritz, *Alex* ipuinean Andereño Kontxesi aipatzen da, ziurrenik 1986 eta 1990 bitartean Erein argitaletxeak sortu zuen *Madame Kontxesi-Urbe, Brigada & Detektibe* sailari keinu bat eginez.

¹⁸ «(...) al ser humano situado al borde del abismo de la deshumanización le cuesta reconocerse a sí mismo, o bien, le cuesta aceptar que *eso* es él mismo».

Mitoren bat edo beste ere baliatzen du Mariasun Landak, esaterako itsaslaminena. *Errusika* arkakusoa kamiolari baten bizkar bizi denean hark bularrean tatuaturik duen sirena kantari hasten zaio:

Bat batean, **kantu baten hots mehea** entzun zuen, doinu fin eta malenkoniatsua... Kristalezkoa zirudien ahots hauskor hark. Nondik ote zeterren? Kantu hura ez zen dantza egiteko aproposa, adi-adi entzun eta bihotzeraino heltzen den horietakoa baizik.

Errusika, **hipnotizatuta bezala**, gaztearen zilbor epela utzi eta saltoto txikiez kantaren sorlekura abiatu zen, indar berezi batek harantz eramango balu bezala...

(...)

Gaztearen bular iletsuan marrazturik zegoen **sirena txiki bat** ari ziztaion hizketan Errusikari... (62)

Idazle honen azken ipuinean, *Ipurtargiak paradisu*an, Adan eta Ebaren mitoaren bertsio moduko bat aurkezten zaigu. Gainera, pasarte ezagunak direnean, azaletik kontaktzen ditu, ziurrenik narrazioaren haria jarraitzeko beharrezkoak ez direlako: «Bada, geroago, sagarrarena gertatu zela. Hor sugeak zerikusi handia izan omen zuen, Ebari zirika eta zirika ibili baitzen nonbait».

Literaturaz gain, badira pertsonaia historikoak eta kantari ospetsuak ere. *Galtzerdi suizidan* galtzerdiaren nagusiak Plinio izena du, k.o. 23-79 urte bitartean bizi izan zen idazle, filosofo eta historialari estoikoak bezala. Plinio Zaharrak emandako aholkuak maite ditu galtzerdiak eta, batzuetan, haren ahotan jartzen ditu beste pertsonaia batzuen hitzak ere: «izan ala ez izan, hori da kontua» (53). *Marlene eta taxizapatako* katuak Marlene izena du eta, hainbat ikerlariaren ustez, Marlene Dietrich aktore eta abeslari famatuari egiten dio erreferentzia, baita II Mundu Gerraren garaian arrakasta handia lortu zuen «Lili, Lili Marlene» kantari ere.

Aipatutako elementu intertestual gehienek literatura unibertsaleko lan ezagunekin egiten dute lotura, baina ezin dugu ahaztu (batez ere fantasiari eta kritika egiteko moduari dagokionez) Landaren narrazioetan eragin handia izan duten idazleatariko bi: Gianni Rodari italiarra eta Christine Nöstlinger austriarra. Horrela aitortzen digu, hain zuzen, idazle errenteriarrek berak:

Abentura horrek [ikastoletarako materiala egitearenak] sartu ninduen, harridura eta berotasunez, kanon ofizialak baztertutako Haur Literatura modernoaren kontinente ezezagunean, ustekabez betetako kutxa bat izan zena niretzat: Gianni Rodari, Christine Nöstlinger, Maria Gripe, Michael Ende, Roald Dhal... Urteekin, nire interesak atzera egin du, klasikoak deitu ditugunenganantz, ahozko literaturarantz, zenbat eta sakonago orduan eta aberats eta zabalagoa den zuloa egiten ari dena bezalagedo. (Landa, 2003, 22 orr.)

4. AZKEN GOGOETAK

Mariasun Landaren literaturak berezitasun asko ditu eta batzuetan metafikzioa egiten ari delako sentipena du irakurleak, idazlea istoriotik atera eta (bere) literaturari buruz hausnarrean ariko balitz bezala. *Maria eta aterkia* obran, esaterako, naufragoak irlako muinotik itsaso zabalera begiratu eta esperantza begiztatzen duela esaten dio aterkiari. Hark, aldiz, «ozeano neurtezina» besterik ezin du ikusi. Orduan naufragoak «esperantza ikusteko denbora asko eta asko egon behar dela» (42) adierazten dio euritakoari. Aipu hori haur eta gazte literatura onak eskaintzen duen irakurketa mailekin lot daiteke: guardasolak (hots, literaturan zaildua ez denak) denboraren bidez bakarrik erdietsiko baitu naufragoak esperientziaren bidez lortutakoa. Orokortasunetik zehaztasunera joaz, *Marlene eta taxizapata* kontakizuneko lehen kapituluan narratzailearen hitzek Mariasun Landaren sorkuntza prozesua deskribatzen dutela dirudi:

Honek ipuina dirudi, pentsatu zuen ilargiak [ala Mariasun Landak?] bere asperretik esnatuz. Inork begiratzen ez duen lekuetara begiratzea zuen gogoko, inork arreta jartzen ez diona behatzea, ustekabeko pertsonaiak aurkitzea, istorio bitxiak... (11)

Idazle honen unibertso literarioa, beraz, ñabardurez josia da. Ikastolako haurrentzako materiala behar zelako idatzi zuen *Amets uhinak*, baina era berean hori izan zen beranduago osatuko zituen beste liburuetako pertsonaia eta egoeren abiapuntu. Bere literatur ibilbidean zehar errepikatzen diren hainbat elementu topa ditzakegu bertan. Anabel Sáiz ere jabetu da horretaz eta honako hau dio: «bere unibertsoak funts komun bat du, baina beti jakin izan du berri itxura ematen. Ez ditu planteamenduak errepikatzen, nahiz eta badiren lotura batzuk»¹⁹ (2007, 9 orr.).

Zenbait parekotasun jasotzearen, *Iholdiko* «Elefante eta arkakusoa»-k *Elefante txori-bihotza* eta *Errusika* ekartzen dizkigu gogora eta *Iholdiko* «Ahateak eta papertxoriak» *Ahatetxoa eta sahats negartia*. Era berean, pertsonaia batzuen izenak behin baino gehiagotan erabiltzen ditu eta Maider *Amets uhinakeko* «Txaf Planetaf»-en ez ezik, *Katuak bakar-bakarrik sentitzen direnean* liburuan eta *Aitonaren txalupan* ere aurki dezakegu, lehenengoan eskutitz baten hartzaile eta beste bietan narratzaile-protagonista. Gauza bera gertatzen da Xabierrekin, *Izeba txikian* laster jaioko den umearen izena izateaz gain, *Nire eskua zurean* narrazioko protagonista baita.

Bestalde, «Ahateak eta papertxoriak» (*Iholdi*), *Amona*, *zure Iholdi*, *Marina* eta *Ahatetxoa eta sahats negartia* kontakizunetan antzeko paisaia des-

¹⁹ «su universo tiene un fondo común, pero siempre le sabe dar la apariencia de novedad. Nunca se repite en sus planteamientos, aunque, eso sí, hay unos nexos de unión» (2007, 9 orr.).

kribatzen zaigu: urmaela, ahateak, beltxargak, sahots negartia, papertxoriak eta usategia dituen parke bat. Ipuin horiek guztiak leku berean kokatu dituela ematen du, Landaren mundu literarioko parke berezi horretan, hain zuzen.

Azken batean, Mariasun Landak errealitatea modu ulergarri, dibertigarri eta kritiko batez aurkezten die haur eta gazteei, kolore ezberdineko hariez ehundutako istorioetan bere mundu ikuskera eskainiz.

Jasotze-data: 2011/10/03

Onartze-data: 2012/01/23

Abstract

The aim of this paper is to analyse the reasons behind the success of Mariasun Landa's Basque children's and young adults literature, offering a panoramic view of her literary universe. There are several peculiarities in this writer's fruitful career path, especially regarding the subjects, characters and narrative style. Her first storybook was created as teaching material for ikastolas and since then her stories have brought big innovations to Basque Literature. A good example of that is the story Txan fantasma, which marked the beginning of modernity in Basque children's and young adults literature. The characters' deep psychology, the social criticism, the stories' characteristics, the figures of speech etc. allow covering diverse reading levels and, hence, each reader can draw different conclusions. In this way, Mariasun Landa's literature can satisfy both the beginners and the most demanding readers.

Keywords: *Child/youth literature. Critical realism. Modernity. Primary/Secondary Education. Mariasun Landa.*

En este artículo se pretenden analizar las razones del éxito obtenido por Mariasun Landa en el ámbito de la literatura infantil y juvenil vasca, ofreciendo una visión panorámica de su universo literario. En la fructífera trayectoria de esta escritora podemos encontrar diversas particularidades, sobre todo en lo referente a temas, personajes y el estilo narrativo. Su primer libro de cuentos lo creó como material literario para las ikastolas, y a partir de entonces sus narraciones han aportado grandes innovaciones a la literatura vasca. Un ejemplo de ello es el cuento Txan fantasma, con el que abre el camino a la modernidad en la literatura infantil y juvenil vasca. La profunda psicología de los personajes, la crítica social, las características de las historias, el uso controlado de los recursos literarios etcétera permiten diferen-

tes niveles de lectura, por lo que cada lector puede sacar sus propias conclusiones. De esta forma, la literatura de Mariasun Landa sirve para satisfacer tanto a los lectores recién iniciados como a los más exigentes.

Palabras clave: Literatura infantil/juvenil. Realismo crítico. Modernidad. Educación primaria/secundaria. Mariasun Landa.

Cet article analyse les raisons du succès de Mariasun Landa dans la littérature jeunesse en donnant une vision panoramique de son univers littéraire. Sa riche œuvre littéraire se distingue surtout par l'originalité de ses thèmes, de ses personnages et de son style narratif. Elle a écrit son premier livre-roman afin qu'il serve de matériel didactique aux ikastola et ses récits ont par la suite permis un renouveau considérable de la littérature basque. Txan fantasma en est un exemple, l'œuvre ayant marqué le début de la modernité dans la littérature jeunesse. La profondeur des personnages, sa critique de la société, la qualité de ses histoires, l'usage mesuré des figures littéraires etc. permettent différents niveaux de lecture et donc différentes interprétations en fonction du lecteur. Ainsi, l'œuvre de Mariasun Landa peut contenter les lecteurs novices comme les plus aguerris.

Mots clé: Littérature pour enfants/jeunes. Réalisme critique. Modernité. Enseignement primaire/secondaire. Mariasun Landa.

BIBLIOGRAFIA

- Biedermann, Hans (1989 [1993]): *Diccionario de símbolos*. Barcelona: Ediciones Paidós Ibérica.
- Borda Crespo, M.^a Isabel (2002): *Literatura infantil y juvenil: teoría y didáctica*. Granada: Grupo Editorial Universitario.
- Calleja, Severino (1987): «Concepto y límites de lo infantil en la literatura». *Letras de Deusto* 17 (37), 41-60.
- Colomer, Teresa (1999): *Introducción a la literatura infantil y juvenil*. Madrid: Síntesis.
- Etxaniz, Xabier eta Maite Mendiburu (1990): «Ideologi mezuak haur literaturan». *Tantak* 3, 87-96.
- Etxaniz, Xabier (1997): *Euskal Haur eta Gazte Literaturaren Historia*. Iruñea: Pamiela.
- (2003): «Mariasun Landa hasi zen eta hazi da». *Behinola* 9, 19-20.
- Ibarluzea, Miren (2011): «Mariasun Landa: Iholdi (1988)». *Egungo euskal haur eta gazte literaturaren historia*, 121-126.
- Ipupomamua saioa (2010): *Mariasun Landaren mundu imaginarioa (elkarriketa)*. <http://www.eitb.com/bideoak/telebista/ipupomamua/osoal/382529/ipupomamua->

- mariasun-landaren-mundu-imaginarioa/. 2011ko abuztuaren 5ean kontsultatua.
- Landa, Mariasun (2003): «Elefanteak, arkakusoak, krokodiloak... Barruko fauna-
ren inguruan». *Behinola* 9, 21-27.
- Lasarte, Gema (2005): «Los personajes de Mariasun Landa y la construcción de
identidades femeninas alternativas». *III Congreso Ibérico de Literatura In-
fantil y Juvenil*. Valentzia, 2005eko ekainak 27-30. [http://www.aepv.net/
miniwebs/congresoLiteraturaInfantil/ comunica/C7LOSPERSONAJES.pdf](http://www.aepv.net/miniwebs/congresoLiteraturaInfantil/comunica/C7LOSPERSONAJES.pdf).
2011ko abuztuaren 4an kontsultatua.
- Lopez Gaseni, Manu (2004): «Esas bestias que nos quitan el sueño (*Krokodiloa
ohe azpian* liburuarren erreseina)». *Panorama de la Literatura Infantil y Juve-
nil vasca actual (Revista Behinola 1994-2004)*, 180-181.
- Olaziregi, Mari Jose (1999): «Intimismoaz haraindi: emakumezkoek idatzitako
euskal literatura». *Oihenart* 17, 27-75.
- Ries, Julien (1994): *Los ritos de iniciación*. Bilbao: Ediciones EGA.
- Sáiz Ripoll, Anabel (2007): «La literatura de Mariasun Landa». *CLIJ* 206, 7-19.
- Sala, Teresa (elkarrizketatzailea) (2000): «Haur eta gazte literatura onak ez du hel-
dua aspertzen». *Euskonews & Media* 98.
- Sánchez Corral, Luis (1995): *Literatura infantil y lenguaje literario*. Barcelona:
Paidós.
- Serrano Mariezkurrena, Amaia (2011): «Mariasun Landa: *Krokodiloa ohe azpian*
(2002)». *Egungo euskal haur eta gazte literaturaren historia*, 169-180.
- Strausfeld, Michi (1989): «El realismo crítico en la literatura infantil-juvenil», in
CLIJ 4, 83-87.

AZTERTUTAKO BIBLIOGRAFIA

- Landa, Mariasun. (1982 [2006]): *Amets uhinak*. Donostia: Elkar.
- (1982 [2007]): *Kaskarintxo*. Donostia: Elkar.
 - (1983 [1997]): *Elisabete lehoi domatzailea*. Donostia: Elkar.
 - (1983 [2006]): *Joxepi dendaria*. Donostia: Elkarlanean.
 - (1984 [2005]): *Partxela*. Donostia: Elkar.
 - (1984 [1992]): *Txan fantasma*. Donostia: Elkar.
 - (1985 [1988]): *Izar berdea*. Donostia: Elkar.
 - (1988): *Aitonaren txalupa*. Donostia: Elkar.
 - (1988 [2009]): *Errusika*. Donostia: Elkar.
 - (1988): *Iholdi*. Donostia: Erein.
 - (1988 [2005]): *Iholdi*. Donostia: Erein.
 - (1988 [2005]): *Izeba txikia*. Donostia: Erein.
 - (1988 [1991]): *Maria eta aterkia*. Donostia: Elkar.
 - (1990 [2005]): *Alex*. Donostia: Erein.
 - (1990): *Irma*. Donostia: Elkar.
 - (1990 [1998]): *Kleta bizikleta*. Donostia: Elkarlanean.
 - (1992). *Potx*. Donostia: Elkar.
 - (1994 [2008]): *Julieta, Romeo eta saguak*. Madril: SM.
 - (1995 [2009]): *Nire eskua zurean*. Donostia: Erein.

- (1997). *Ahatetxoa eta sahats negartia*. Donostia: Elkar.
- (1997 [2008]): *Katuak bakar-bakarrik sentitzen direnean*. Madril: Anaya-Haritz.
- (2000 [2005]): *Amona, zure Iholdi*. Donostia: Erein.
- (2000 [2007]): *Sorgina eta maisua*. Donostia: Elkar.
- (2001 [2005]): *Elefante txori-bihotza*. Madril: Anaya-Haritz.
- (2001 [2010]): *Galtzerdi suizida*. Donostia: Elkarlanean.
- (2002 [2008]): *Krokodiloa ohe azpian*. Irun: Alberdania.
- (2002): *Marlene eta taxizapata*. Madril: SM.
- (2004): *Inurri bitxia*. Donostia: Erein.
- (2005): *Haginak eta hilobiak*. Donostia: Erein.
- (2005): *Marina*. Donostia: Erein.
- (2010): *Ipurtargiak paradisu*. Donostia: Elkar.